

Haur Eskolako 2023/2024 ikasturterako matrikulazioa

2023/2024 ikasturterako, **2021ean, 2022an eta 2023an** jaiotako haurrak matrikulatzeko epea **GAUR bukatzen da**.

Matrikula egiteko aurretik ordua eskatu behar da 943361216 telefono zenbakira deituz edo haureskola@udarregi.eus helbidera idatziz.



Maiatzeko jangelako menuak

Hau da maiatzeko jangelako bazkaldarrek izango duten menua:

- [Arruntak](#)
- [Bereziak](#): alergia edo intolerantziadunak



Dislexiaren inguruko saioa

Dislegi Elkartearen eskutik dislexiaren inguruko saio bat antolatuko da ikastolako guraso guztientzat, baldin eta gutxieneko kopurua osatzen bada.

Noiz: maiatzak 3

Non: Potxoenea (Urdintxo aretoan)

Ordua: 16:45etik - 18:00etara

Izena emateko esteka:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfEPPzVUdymOM0ONQLcrEfh9PEkjjQxu3mdqLHPBmLeOqI08Q/viewform?vc=0&c=0&w=1&flr=0>

Oharrak: Izena emateko azken eguna maiatzaren 1a da. Saioa aurrera aterako den edo ez den, Alexia bitartez komunikatuko zaizue.



Maiatzerako tailerrak

Hitz Aho Guraso Elkarteak Udarregi ikastolarekin eta Usurbilgo Udalarekin batera, **pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzeza gonbidatzen zaituztete.**



Solasaldian, gure haurrei pantailak noiz eskaini, mugikorra erabiltzen irakatsi, gatazkak nola kudeatu eta bakoitzaren kezka partekatzeke aukera izango dugu.

Oraingoan, gaia lantzen urteak daramatzen Zarauzko guraso taldea izango da gurean: "Gure aukera, guk 16"

Bertan parte hartzeko aurrez gonbidapena eskuratu behar da usurbilkultura.eus atarian.

Norentzat: **gurasoak, irakasleak, hezitzaileak, teknikariak, interesatu oro.**

Eguna: **maiatzak 2**

Ordua: **17:00-18:30**

Lekua: **Potxoeneako Urdintxo gelan**

Familia-plana

Maiatzaren 7an, igandea, ospatuko den **Andatza** egunerako familia-plan baterako gonbitarekin gatoz Zirimarako hezitzaileak.

Deialdia irekia da, hau da, herriko edozein familiak har dezake parte.

Egitaraua:

- **Goizeko 9:30ean elkartuko gara Txokoalden** (trenbide ondoko aparkalekuan). Familia giroan, Usurbilgo mendi kuttunak gordetzen dizkigun zenbait txoko eder, mitologiako zenbait pertsonaiaren eskutik ezagutzeko aukera izango dugu.
- 12:30ean argazkia aterako dugu denok Andatzako borda parean.
- Andatzako borda ingurua goiz osoa musikaz alaitua egongo da.

Bertan ikusiko zaituztegunakoa, aste ona izan!



ZIRIMARA: Informazio-bilera

Datorren ikasturteko eskola kiroleko Zirimara (LH1,2,3 eta 4) eta multikirola (LH5 eta 6) informazioa eman eta plangintza aurkezteko bilerak egingo dira.

- Datorren ikasturtean LH1 eta LH4 maila bitartean egongo diren ikasleen familientzat: MAIATZAREN 9an 17:00 Agerialdeko jangelan.
- Datorren ikasturtean LH5 eta LH6 mailan egongo diren ikasleen familientzat: MAIATZAREN 11n 17:00etan Agerialdeko jangelan.



Zirimara; ate irekiak

Datorren ikasturtean LH1 eta LH4 maila bitartean egongo diren ikasleei zuzenduta, Zirimarak, ate irekiak antolatu ditu. Zirimara familian aukera ere probatu ahal izango da. [Informazio gehiago...](#)



HAUR HEZKUNTZA

Udajolas

Maiatzaren 2tik 10era bitarte 4 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dagoen udako Udajolas udalekuetan izena emateko epea irekita egongo da. Informazio osoa [hemen](#) topa dezakezue.




LEHEN HEZKUNTZA

LH 5 eta 6. Mailako familientzat oharra

Dakizuen bezala, 2019. urtean ikastolako bazkariaren antolaketan aldaketa batzuk egitea erabaki zen. Ikastola komunitateko guraso guztion parte hartzea bultzatzeko, urtero, ikastola eguneko bazkarirako antolaketaren ardura **LH5 eta LH6**ko gurasoen esku uztea erabaki zen.

Ekintza horren antolaketaz hitz egiteko, **maiatzaren 4an, osteguna, ikastolako jangelan arratsaldeko 16:45ean bilduko gara.**



LH 5. eta 6. mailako familientzat oharra

Maiatzak 3an, Gipuzkoako Dislexia elkartekoak (Dislegi) Udarregin izango ditugu LH5. eta LH6. mailako ikasleekin eta, jasoko duten ikastaroaren bidez, dislexiaren ezaugarriak zeintzuk diren ezagutzeaz gain, ariketa desberdinak burutuko dituzte beraien lekuan jarritz.



Irteeren kobrantza

Datorren ostiralean, maiatzak 5, LH 1. mailako ikasleek Mendukilora egindako irteera kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kostua **17,35 €** izango da (autobusa:12,35 € + sarrera: 5 €).



Udajolas

Maiatzaren 2tik 10era bitarte 4 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dagoen udako Udajolas udalekuetan izena emateko epea irekita egongo da. Informazio osoa [hemen](#) topa dezakezue.



DBH

DBH 4ko familiei oharra

Jakinarazten dugu 2023/24 ikasturterako Lanbide Heziketako aurre-matrikula epea **maiatzaren 8tik 26ra bitarte dela**.



Irteeren kobrantza

Datorren ostiralean, maiatzaren 5ean, DBH 1. mailako ikasleek maiatzaren 4an eta 5ean **Zuhatzara** egingo dugun ikasturte amaierako irteeraren azken zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kostua **31 €** izango da.

